

PROBA ESPEZIFIKOA

2018ko PROBA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

Azterketaren egitura eta atal bakoitzaren balorazioa:

2 GALDERA TEORIKO; guztira, 3 puntuko balioa. Galdera bakoitzak, gehienez, 1.5 puntuko balioa izango du.

2 PROBLEMA; guztira, 4 puntuko balioa. Atal honetan, ikasleak 3 problemaren artetik 2 hautatu eta ebatzi beharko ditu. Problema bakoitzak, gehienez, 2 puntuko balioa izango du.

TEST MOTAKO 10 GALDERA, hiru erantzun aukeran baina zuzena erantzun bakarra izanik. Guztira, **3 puntuko** balioa izango dute. Erantzun egoki bakoitzari 0,3 puntu emango zaizkio; erantzun desegoki bakoitzeko 0,1 puntu kenduko dira, eta erantzun gabe utziz gero, ez da punturik kenduko. Atal honetan, dena dela, azken emaitza ez da inoiz negatiboa izango.

- Galdera teorikoetan eta problemetan, atal bakoitzaren balorazioa letra etzanez adierazita dago, baita zuzentzeko irizpidea ere.

GALDERA TEORIKOAK

1. Definitu zuzeneko zergak, zeharkako zergak eta tasak. Adierazi haien arteko ezberdintasunak.
(0,5 puntu definizio bakoitzeko)
2. Enpresa multinazionalen ezaugarriak.
(0,4 puntu ezaugarri bakoitzeko; gehienez, 1,5 puntu)

PROBLEMAK

Aukeratu itzazu hiru problema hauetako bi.

- 1) Biltegi batean, astero 42 pintura-poto kontsumitzen dira. Hilabete bakoitzean (30 egun) eskaera bakar bat egiten da, eta eskaerak 3 egun behar ditu iristeko.

Jakinda biltegi horren egoera konstantea dela eta gutxienez 20 potu biltegian mantendu nahi dituela, kalkulatu:

- a) Eskaera-puntua
- b) Batez besteko stock-maila.
- c) Errotazio-indizea
- d) Biltegiko eboluzioaren grafikoa.
- e) Zergatik mantentzen dute enpresek biltegiko segurtasun-stocka?



- 2) Hemengo eraikuntza-enpresa bateko 30 langileek 60 egun behar izan dituzte 6.000 m³-ko harresi bat jasotzeko, eguneko 9 ordu lan eginez. Beste herrialde bateko enpresa batek 40 langile erabili ditu harresi berdina eraikitzeko, 40 egunez eta eguneko 8 orduko lan eginez.
- Kalkula ezazu enpresa bietako lan-orduko produktibitatea.
 - Konpara itzazu produktibitateak %-tan.
- 3) PADURA SA enpresak kontabilitate-informazio hau aurkezten du (eurotan): kutxa: 400; erresebak: 3.000; bezeroak: 5.600, eraikuntzak: 150.000; makineria: 19.000; bazkideen ekarpenak: 75.000; ibilgetu materialaren amortizazio metatua: 9.000; epe luzeko zorrak: 29.000; hornitzaileak: 11.000; izakinak: 17.000; ekitaldiaren emaitza: kalkulatu gabe.
- Aurreko informazioarekin:
- Kalkulatu ekitaldiko emaitza (0,5 puntu).
 - Egin egoera-balantzea, ondare-masa eta azpimasatan ordenatuta eta sailkatuta (0,5 puntu).
 - Kalkulatu maniobra-funtsa, eta interpreta ezazu grafiko baten laguntzaz (0,5 puntu: kalkulua 0,25 puntu eta interpretazioa 0,25 puntu).
 - Azaldu enpresaren finantza-egoera (finantza-oreka) (0,5 puntu).

TEST MOTAKO GALDERAK:

Ingura ezazu aukera zuzena zirkulu batez.

1) Ekonomia mistoaren ezaugarria hau da:

- Ez dago merkatu-akatsik.
- Eskariaren eta eskaintzaren arteko joko askea.
- Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak erabaki ekonomikoetan.

2) Eskasiak hau dakar:

- Gobernuak ondasunak banatzeko parte hartu beharra.
- Pertsonen nahi mugagabeak izatea eta ondasunak, berriz, mugatuak izatea.
- Aukera-kosturik ez izatea.

3) Enpresa baten merkatu-kuota jaitzi egiten da, baldin eta ...

- Enpresaren salmentak eta lehiakideen salmentak proportzio berean jaisten badira.



- b) Enpresaren salmentak lehiakideenak baino gehiago jaisten badira.
c) Enpresaren salmentak handitzen badira eta lehiakideen salmentak ere proportzio berean igotzen badira.
- 4) ETE bat enpresa mota bat da, ezaugarri hau duena:**
- a) Kapital handia izatea eta merkatuan finantza-egoera sendoa izatea.
b) Multinazional baten filiala izaten ohi da.
c) Enpresa txiki eta ertaina izatea izena.
- 5) Sozietate anonimoan:**
- a) Kapitala akziotan banatuta dago, eta bazkideen ekarpenekin osatuta. Sozietateak zorrak baditu, bazkideek ez dute erantzuten beren ondasun pertsonalekin.
b) Bazkideek erantzukizun mugagabea dute enpresaren betebeharren aurrean.
c) Sozietatearen helburua merkataritza-jarduera bat ustiatzea da.
- 6) Enpresa batean, ekoizpena 357 unitatetik 642 unitatera pasatu da, eta haren kostuak 10.750 €tik 12.631 €ra pasatzen dira. Zein da haren kostu marjinala?**
- a) 1.881 €
b) 6,6 €
c) 285 €
- 7) Errentagarritasun-atalaseak hau adierazten du:**
- a) Enpresak ekoiztu beharreko kantitatea sarrerak eta kostuak berdintzeko.
b) Enpresak ekoiztu beharreko kantitatea sarrerak kostuak baino handiagoak izateko.
c) Enpresak ekoiztu beharreko kantitatea sarrerak kostuak baino txikiagoak izateko.
- 8) Enpresaren aktiboaren higaduragatik sorturiko amortizazioek:**
- a) Ez dute eraginik kontabilitatean.
b) Ez dute eraginik galera-irabazien kontuan.
c) Zeinu negatiboarekin kontabilizatzen dira enpresaren aktiboan.
- 9) Adierazi baieztapen hauetatik zein den egia:**
- a) BPGak herrialde batean ekoiztutako amaierako ondasun eta zerbitzuak bakarrik hartzen ditu kontuan.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2018ko MAIATZA

MAYO 2018

ENPRESAREN EKONOMIA

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

- b) BPGak herrialde batean ekoiztutako bitarteko zein amaierako ondasun eta zerbitzuak hartzen ditu kontuan.
- c) BPGak herrialde batean ekoiztutako bitarteko ondasun eta zerbitzuak bakarrik hartzen ditu kontuan.

10) Hau da biztanleria aktiboaren eta biztanleria osoaren arteko zatidura:

- a) Okupazio-tasa.
- b) Langabezia-tasa.
- c) Jarduera-tasa.



EBAZPENA ENPRESAREN EKONOMIA (2018ko maiatza)

GALDERA TEORIKOAK:

1.

- Zuzeneko zergak:** pertsoneri edo enpresei dagozkien zergak dira, dela etekina lortu dutelako dela ondasun baten jabe direlako.
- Zeharkako zergak:** ondasunen edo zerbitzuen kontsumoari dagozkien zergak dira, bai eta ondasunen eta eskubideen eskualdatzei ere.
- Tasak:** erakunde publiko bati emandako diru-prestazioak dira, hark erabiltzaileari zuzeneko onura dakarkion zerbitzu publiko edo jarduera baten truke emanak (adibidez, unibertsitate-tasak).

2.

- Punta-puntako teknologia dute; horregatik, etengabe hazten dira, eta, apurka-apurka, merkatua berenganatzen dute.
- Oso handiak direnez, aukera dute merkaturatzen dituzten ondasun eta zerbitzuetan eskala-ekonomiak lortzeko.
- Enpresa nagusiak filialen gaineko zuzeneko kontrola izan dezake, edo zeharkakoa, haien kapital sozialean partaidetza izanda.
- Multzo osoaren (enpresa nagusia eta filialak) emaitzei esker, elkar konpentsatzen dute, eta oreka lortzen dute.
- Halaber, tamainari esker, garrantzi handia izaten dute beren sektorean.
- Haien egiturari, enpresa nagusia taldeak jarraitu beharreko estrategia zehazteaz arduratzen da, eta plangintza- eta kontrol-jarduerak egiten ditu.

PROBLEMAK

1.

- a) Eskaera-puntua = Segurtasun-stocka + hornikuntza-epeko kontsumoa (3 egun)

Hornikuntza-epeko kontsumoa $\rightarrow (42/7) \times 3 = 18$ poto

Eskaera-puntua = $20 + 18 = 38$ poto


Biltegian 38 poto geratzen direnean, eskaera berri bat egin beharko da.

- b) Batez besteko stocka = segurtasun-stocka + $(Q/2) \Rightarrow 20 + \frac{42 \cdot 30}{2} = 110$ poto

- c) Errotazio-indizea: urteko kontsumoa / batez besteko stocka $\frac{180 \cdot 12}{110} = 19,63$ aldiz



d)



e) Enpresa biltegian saltzeko produkturik gabe gelditzen denean hausten da stocka. Hausturak berekin ekar dezake bezeroari ezin erantzutea edo ekoizpena etetea.

2.

a) Hemengo enpresaren produktibitatea $\frac{\text{harresiaren } m^3}{30 \times 30 \times 9} = \frac{0,37m^3}{1 \text{ lan-ordu}}$

Atzerriko enpresaren produktibitatea $\frac{\text{harresiaren } m^3}{40 \times 40 \times 8} = \frac{0,46m^3}{1 \text{ lan-ordu}}$

b) $\frac{0,46}{0,37} \times 100 = 124,32$

Atzerriko langileen produktibitatea % 24,32 handiagoa da bertakoena baino

3.

AKTIBOA		ONDARE GARBIA + PASIBOA	
Aktibo ez-korrontea	160.000	Ondare Garbia	143.000
Eraikinak	150.000	Kapital soziala	100 000
Makineria	19.000	Erreserbak	3.000
		Ekital emaitza	40.000
Ibil. Amort metatu	-9.000	Pasibo ez-korrontea	29.000
Aktibo korrontea	23 000	Epe luzeko zorrak	29.000
Izakinak	17.000	Pasibo korrontea	11.000
Bezeroak	5.600	Hornitzaileak	11.000
Kutxa	400		
AKTIBOA GUZTIRA	183.000	ONDARE GARBIA + PASIBOA GUZTIRA	

b) Maniobra-funtsak enpresaren epe laburreko finantza-oreka zehazten du. Halaber, enpresaren epe luzeko finantzaziorari buruzko informazioa ematen du.



Ondare garbiak + Pasibo ez-korronteak – Aktibo ez-korrontea (epe luzean finantzatutako epe laburreko partea).

Maniobra-funtsa = Aktibo korrontea – Pasibo korrontea = (Ondare garbia + Pasibo ez-korrontea) – Aktibo ez-korrontea.

Enpresa honen kasuan, maniobra-funtsa hau da:

Maniobra-funtsa = 23.000 – 11.000 = (143.000 + 29.000) – 160.000 = 12.000 euro

Aktibo ez-korrontea		Pasibo ez-korrontea+ond. garbia
160.000		172.000
Aktibo korrontea	M F	
23 000	12.000	
		Pasibo korrontea
		11.000

Finantza-orekan dago: epe laburreko ondasun eta eskubideekin aurre egin diezaioke epe laburreko galdagarriari, eta ia izakin guztiak epe luzean finantzatzen dira.

TEST MODUKO GALDERAK

1. c 2. b 3. b 4. c 5. a 6. b 7.a 8. c 9. a 10. c



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2018ko MAIATZA

MAYO 2018

ENPRESAREN EKONOMIA *ECONOMÍA DE LA EMPRESA*

**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO
ERLAZIOA**

GALDERA	EZAGUTZA-ADIERAZLEA
Galdera teorikoak	
1	1.6
2	2.4
Problemak	
1	2.14
2	2.9
3	3.1 3.5
Test motako galderak	
1	1.3
2	1.1
3	2.2
4	2.4
5	2.7
6	2.15
7	2.17
8	3.2
9	1.7
10	1.8